

## Xedapen Orokorrak

### OSASUN SAILA

#### Zk-3095

260/1999 DEKRETUA, ekainaren 22koa, Euskadiko Sanitate Kontseilua eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Osasun Barrutietako Kontseiluak arautzen dituenak.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legeak bere 11. artikuluan xedatzen duenez, Euskadiko sistema sanitarioan herritarren partaidetza posible izan dadin beharrezkoa da araudiz partaidetza komunitarioko kontseiluak sortzea, bai Autonomia Erkidegoaren esparruan, bai osasun-barrutien esparruan.

Artikulu horretan bertan ezartzen denaren arabera, kontseiluek kontsulta- eta aholkularitza-ahalmenak izango dituzte, ondoko haueetan hain zuzen: sistemaren plan eta helburu orokorren formulazioan, exekuzio-emaitzen jarraipenean eta azken ebaluazioan.

Kontseilukideak izendatzeko irizpideetan kontuan hartuko da honakoen ordezkariak egotea: lurralde eta sektore sanitarioko ordezkariak, toki-administrazioetako ordezkariak, elkargo profesional sanitarioenak, kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarteak, sindikatuenak eta enpresa-erakundeak.

Kontseiluok dagoeneko sortuak ziren Osasun Sailaren eta Osakidetza Administrazio-Organismo Autonomoaren egitura organikoak eta funtzionalak ezartzen dituen uztailaren 11ko 369/1995 Dekretuaren 2.E artikulua bidez (Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala aldatzen duen azaroaren 11ko 254/1997 Dekretuak emandako idazkera).

Horrek gaur egun arte indarrean jarraitu du, zeren eta Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 2ko 65/1999 Dekretuak lehen aipatu diren dekretuak indargabetu dituen arren, bertako bigarren xedapen iragankorrean jasotzen baita partaidetza komunitarioko kontseiluei buruzko arauak aplikagarriak izango zirela, behin-behingo, harik eta beren beregiko araudia ezartzen den arte.

Hori dela eta, oraingo dekretu honen bidez Euskadiko Sanitate Kontseiluaren eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Osasun Barrutietako Kontseiluen funtzionamendua eta kideak ezarri nahi dira, beti ere lehen aipaturiko Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legeak bere 11. artikuluan adierazitako irizpideekin bat.

## Disposiciones Generales

### DEPARTAMENTO DE SANIDAD

#### Nº-3095

DECRETO 260/1999, de 22 de junio, por el que se regulan el Consejo de Sanidad de Euskadi y los Consejos de Área de Salud de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa.

La Ley 8/1997, de 26 de junio, de Ordenación sanitaria de Euskadi, establece en su artículo 11 la necesidad de regular, como órganos de participación ciudadana en el sistema sanitario de Euskadi, los Consejos de participación comunitaria, los cuales deberán establecerse tanto para el ámbito de toda la Comunidad Autónoma, como para el ámbito de cada Área de Salud.

Según el mismo precepto, dichos Consejos tendrán facultades consultivas y de asesoramiento en la formulación de planes y objetivos generales del sistema, así como en el seguimiento y evaluación final de los resultados de ejecución.

Así mismo, su composición deberá observar criterios de representatividad territorial y del sector sanitario, e incorporar a representantes de las Administraciones locales y forales, de los colegios profesionales sanitarios, de las asociaciones de consumidores y usuarios y de los sindicatos y organizaciones empresariales.

Estos Consejos habían sido ya creados por el artículo 2. E) del Decreto 369/1995, de 11 de julio, por el que se establecen las estructuras orgánicas y funcionales del Departamento de Sanidad y del Organismo Autónomo Administrativo Osakidetza-Servicio Vasco de Salud, en su redacción dada por el Decreto 254/1997, de 11 de noviembre, por el que se modifica la estructura orgánica y funcional del Departamento de Sanidad.

Su contenido ha venido constituyendo hasta el momento la normativa vigente en la materia, puesto que, a pesar de haberse derogado los Decretos últimamente citados por virtud del Decreto 65/1999, de 2 de febrero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Sanidad, su Disposición Transitoria Segunda declaraba transitoriamente aplicables sus normas sobre los Consejos de Participación Comunitaria, en tanto no se estableciera el régimen correspondiente.

Es por ello, por tanto, por lo que se procede a establecer, mediante la presente disposición, la composición y funcionamiento del Consejo de Sanidad de Euskadi y de los Consejos de cada una de las Áreas de Salud de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa, de acuerdo con los criterios recogidos por el artículo 11 de la Ley de Ordenación Sanitaria, antes señalados.

Ondorioz, hainbat erakunderekin kontsulta egin ondoren (sindikatuak, kontsumitzaile- erabiltzaile- eta enpresa-elkarteak, eragindako elkargo profesionalak eta EUDEL-Euskal Udalen Elkartea), Osasun sailburuaren proposamenez eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1999ko ekainaren 22an egindako bileran eztabaidatu eta onartu eta gero, hau

XEDATU DUT:

**1. artikulua.**– Arautu nahi den alorra.

Dekretu honen bidez Euskadiko Sanitate Kontseilua eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Osasun Barrutietako Kontseiluak arautu nahi dira. Kontseiluak Euskadiko sistema sanitarioaren partaidetza komunitarioko organo gisa sortzen dira, Osasun Sailari atxikita, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legeak bere 11. artikuluan xedatzen duenaren arabera.

**2. artikulua.**– Eginkizunak.

1.– Hauek dira Euskadiko Sanitate Kontseiluaren eginkizunak, Autonomia Erkidegoaren eremuan:

a) Kontsultak jasotzea eta aholkuak ematea Euskadiko Osasun Plana formulatzerakoan.

b) Kontsultak jasotzea eta aholkuak ematea sistema sanitarioaren helburu orokorren gainean: atentzio prebentiboa, osasunaren sustapena, aseguramenduaren kudeaketa eta zerbitzu sanitarioen kontratazioa; bai eta Osasun Sailak jakinaraz diezaioketen beste edozein alor ere.

c) Sistema sanitarioaren helburu orokorren inguruan Osasun Sailak aurkezten dizkion gainerako jarduketak ezagutzea.

d) Osasun Planaren helburuen ebaluazioaren berri izatea, eta bai Osasun Sailak jakinarazten dizkion gainerako jarduketan ebaluazioaren berri ere; eta, behar izanez gero, horien gainean txostenak ematea.

e) Osasun Sailaren aurrekontu-programen ildo nagusien berri izatea.

f) Osasun Sailak, orokorrean, arloka edo lurraldeka, egiten dituen programen eta jarduketa-planen betetze mailaren segimendua eta ebaluazioaren berri jakitea.

g) Indarrean dagoen araudia aplikatuz esleidi dakiokeen beste edozein.

2.– Osasun Barrutietako Kontseiluen eginkizunak Euskadiko Sanitate Kontseiluari esleitu zaizkion berak dira, barrutian barrutiko esparruaren barruan, eta, bereziki, bertan ematen diren zerbitzu sanitarioen bereizgarritasunei dagokienez.

Por todo lo expuesto, oídos los sindicatos, las organizaciones empresariales y de consumidores y usuarios, los Colegios profesionales afectados y la Asociación de Municipios Vascos-EUDEL, a propuesta del Consejero de Sanidad, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 22 de junio de 1999,

DISPONGO:

**Artículo 1.**– Objeto de regulación.

Es objeto del presente Decreto la regulación del Consejo de Sanidad de Euskadi y de los Consejos de Área de Salud de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa, los cuales se constituyen, adscritos al Departamento de Sanidad, como órganos de participación comunitaria en el sistema sanitario de Euskadi, de conformidad con lo establecido en el artículo 11 de la Ley de Ordenación sanitaria de Euskadi.

**Artículo 2.**– Funciones.

1.– Corresponde al Consejo de Sanidad de Euskadi el ejercicio de las siguientes funciones, en relación con el ámbito de toda la Comunidad Autónoma:

a) Ser consultado y prestar asesoramiento en relación con la formulación del Plan de Salud de Euskadi.

b) Ser consultado y prestar asesoramiento sobre los objetivos generales del sistema sanitario en materia de atención preventiva y promoción de la salud, gestión del aseguramiento y contratación de los servicios sanitarios u otras materias cuyo conocimiento le sea facilitado por el Departamento de Sanidad.

c) Conocer aquellas otras actuaciones que le sean presentadas por el Departamento de Sanidad, en relación con los objetivos generales del sistema sanitario.

d) Ser informado y emitir, en su caso, informe sobre la evaluación de los objetivos y determinaciones del Plan de Salud y de las demás actuaciones que hubieran sido puestas en su conocimiento previamente por el Departamento de Sanidad.

e) Ser informado sobre las líneas generales de los programas presupuestarios del Departamento de Sanidad.

f) Ser informado sobre el seguimiento y evaluación del cumplimiento de los programas y planes de actuación del Departamento de Sanidad de ámbito general, sectorial o territorial.

g) Cualquier otra que se le atribuya en virtud de la normativa vigente.

2.– Corresponde a los Consejos de Área de Salud las mismas facultades que se atribuyen al Consejo de Sanidad de Euskadi, en relación con el ámbito de las respectivas Áreas de Salud, y especialmente en lo que atañe a las especificidades de los servicios sanitarios que se prestan en las mismas.

**3. artikulua.**– Kontseilukideak.

1.– Osasun Sailaren Osasun Plangintza eta Antolamenduko sailburuordea izango da bai Euskadiko Sanitate Kontseiluko burua bai Osasun Barrutietako Kontseiluetako burua. Berak ezin duenean ordezkari bat izendatuko du, indarrean dauden arauak oro har ezarritako ordezkari-araubidearen indarrez.

2.– Osasun sailburuaren aginduz izendatuko dira Euskadiko Sanitate Kontseiluko kideak; honako hauek hain zuzen:

– Foru aldundietako hiru ordezkari, lurralde historiko bakoitzetik bat.

– Hamabi udal-bazkide, Autonomia Erkidegoko udalen ordezkari gisa. EUDELeK (Euskal Udalen Elkarte) izendatuko ditu.

– Euskadiko elkargo ofizialen lau ordezkari, honako elkargoen ordezkari bana alegia: Medikuen Elkargoa, Erizaintzako Diplomatuak Elkargoa, Botikarien Elkargoa eta Albaitarien Elkargoa.

– Autonomia Erkidegoan zabalkunde handiena duten kontsumitzaile edo erabiltzaileen erakundearen federazioetako ordezkari bi.

– Autonomia Erkidegoan ordezkari handiena duten sindikatu etako lau ordezkari.

– Sanitatearen alorrean ordezkari esanguratsua duten beste sindikatu etako ordezkari bi.

– Autonomia Erkidegoan ordezkari handiena duten enpresa-erakunde etako sei ordezkari.

– Osasun Sailaren ordezkari bat. Kontseiluko idazkaria izango da, eta hitza bai baino botorik ez du izango.

3.– Osasun Barrutietako Kontseiluek Euskadiko Sanitate Kontseiluaren osara bera izango dute; alabaina, ordezkari dauden erakundeek pertsona bat edo beste alda ditzakete, lurraldetasunaren irizpidea eta ondoren aipatzen diren bereizgarritasunak kontuan harturik:

– Lurraldean lurraldeko aldundiak Osasun Barrutietako Kontseiluko hiru foru-ordezkari izendatuko ditu.

– Hamabi udal bazkideak tokian tokiko osasun barrutietako udaletakoak izango dira.

– Kontseiluko idazkaria ezberdina izan daiteke osasun barruti batean eta bestean.

4.– Kontseilukide izateko euren ordezkariak aukeratu behar dituzten erakundeek titular eta ordezkari proposamenak jakinaraziko dizkiete kontseiluetako buruei, Osasun sailburuak agindu bidez izendapena egin dezan.

**Artículo 3.**– Composición.

1.– Tanto el Consejo de Sanidad de Euskadi como los Consejos de Área de Salud estarán presididos por el Viceconsejero de Planificación y Ordenación Sanitaria del Departamento de Sanidad o persona que le sustituya, por aplicación del régimen de suplencias establecido con carácter general por la normativa vigente.

2.– Integran el Consejo de Sanidad de Euskadi los siguientes miembros, que serán nombrados por Orden del Consejero de Sanidad:

– Tres representantes de las Diputaciones Forales, uno por cada Territorio Histórico.

– Doce corporativos municipales, en representación de los Ayuntamientos de la Comunidad Autónoma, designados por la Asociación de Municipios Vascos-Euskadiko Udalen Elkarte (E.U.D.E.L.).

– Cuatro representantes de los Colegios Oficiales de Euskadi, elegidos cada uno de ellos por los Colegios de Médicos, Diplomados en Enfermería, Farmacéuticos y Veterinarios.

– Dos representantes de las federaciones de organizaciones de consumidores o usuarios, con mayor implantación en el ámbito de la Comunidad Autónoma.

– Cuatro representantes de los sindicatos más representativos de la Comunidad Autónoma.

– Dos representantes de otros sindicatos implantados en el sector sanitario por su representatividad en el mismo.

– Seis representantes de las organizaciones empresariales más representativas de la Comunidad Autónoma.

– Un representante del Departamento de Sanidad, el cual actuará como Secretario del Consejo, con voz y sin voto.

3.– Los Consejos de cada Área de Salud tendrán la misma composición que el Consejo de Sanidad de Euskadi, sin perjuicio de que las Instituciones representadas puedan variar la identidad de sus componentes, para adecuarse al criterio de representatividad territorial, y de las siguientes peculiaridades:

– La Diputación correspondiente a cada Territorio Histórico designará a los tres representantes forales en el Consejo de Área de Salud.

– Los doce corporativos municipales lo serán de los Ayuntamientos pertenecientes al Área de Salud que corresponda.

– El cargo de Secretario del Consejo podrá recaer en personas distintas en cada Área de Salud.

4.– Las instituciones o entidades que deban elegir a sus representantes como miembros de los Consejos, comunicarán la designación de los titulares y sus suplentes al Presidente de aquéllos, para que sean nombrados por Orden del Consejero de Sanidad.

Izendapenek lau urte iraungo dute, baina gero berriro ahal izango dira. Hala eta guztiz ere, baldin erakunde batek baino gehiagok euren ordezkariak elkar hartuta hautatu behar badituzte, izendapena urte baterako bakarrik egin ahalko dute, halako moduz non, urtero txandakatuz, erakunde guztietako ordezkariak jardun baitezakete Kontseiluan.

5.- Kontseiluetako buruek gonbidatuta eta bertako funtzionamendua errazteko bidezko ikusten bada, Osasun Sailaren nahi adina ordezkari egon daitezke bertan, hitzarekin baina botorik gabe.

Kontseiluak, gainera, buruaren bitartez, bere zereginak egoki betetzeko beharrezkotzat jotzen dituen txostenak edo irizpen teknikoak eska diezazkioke Osasun Sailari.

#### 4. artikulua.- Deialdiak eta gai-zerrenda.

1.- Kontseiluburuak egingo du kontseiluetako ohi-bilkuren deialdia, urtean bi aldiz gutxienez.

Deialdia bilkura baino hamabost egun lehenago gutxienez egingo da, premiakzko kasuetan izan ezik. Deialdiari aurreko bilkuraren akta eta egun horretarako gai-zerrenda erantsiko zaizkio. Gai-zerrendako aztergaiak 48 ordu lehenago gutxienez aurkeztu beharko dituzte kontseilukideek.

2.- Kontseiluek, halaber, ohiz kanpoko bilkurak egin ditzakete, buruak eskatuta edo kideen %25ek gutxienez eskatuta. Bilkura hori deialdia egin eta hilabete baino lehen egin beharko da.

Ohiz kanpoko bilkuren gai-zerrenda astebete lehenago gutxienez bidaliko zaie kontseilukideei.

#### 5. artikulua.- Kontseiluak eratzea eta erabakiak hartzea.

1.- Kontseiluak lehen deialdian eratzeko gutxieneko quoruma kideen gehiengoa izango da. Bigarren deialdian, ordu erdi geroago, aski izango da kideen herena egotea.

2.- Kideek, bilkuretan, ordezkatzeko dituzten erakundearen ikuspuntua azaldu dezakete dena delako aztergaiari dagokionez. Azalpena ahozkoa izango da, baina horri laguntzeko txosten idatziak aurkeztu ahalko dira. Txostenak aktan jasota geratuko dira, aurkezten dituztenek berariaz hala eskatzen badute.

Erabakiak hartzez gerotan, bilkuran dauden kideen gehiengoz hartuko dira; berdinketarik badago, buruaren botoak emango du ebazpena.

Dichos nombramientos se harán por un período renovable de cuatro años. No obstante, en el caso de que varias instituciones o entidades deban nombrar de común acuerdo a sus representantes en los Consejos, podrán realizarse los nombramientos para un sólo año, de tal forma que se facilite la rotación de los representantes de todas las citadas instituciones o entidades.

5.- A invitación de su Presidente, podrán asistir a los Consejos, con voz y sin voto, cuantos representantes del Departamento de Sanidad se considere oportuno con objeto de facilitar el ejercicio de sus funciones.

Además, el Consejo, a través de su Presidente, podrá solicitar del Departamento de Sanidad la emisión de los informes o dictámenes técnicos que considere necesarios para el cumplimiento de sus funciones.

#### Artículo 4.- Convocatorias y orden del día.

1.- Los Consejos serán convocados por su Presidente en sesión ordinaria, como mínimo, dos veces al año.

La convocatoria se realizará con una antelación mínima de quince días, salvo en los casos de urgencia. A la misma se acompañará el Acta de la reunión anterior, así como el Orden del día, el cual se fijará teniendo en cuenta las peticiones de los demás miembros que hubieran sido formuladas con, al menos, 48 horas de antelación.

2.- Los Consejos podrán, igualmente, reunirse en sesión extraordinaria, cuando así sea convocada por su Presidente o a solicitud de, al menos, un 25% de sus miembros, debiendo efectuarse la reunión en el plazo máximo de un mes desde la convocatoria.

El orden del día de las reuniones extraordinarias será enviado a los miembros del Consejo con un plazo de antelación mínimo de una semana.

#### Artículo 5.- Constitución de los Consejos y adopción de acuerdos.

1.- El quórum para la válida constitución de los Consejos, en primera convocatoria, será el de la mayoría de sus componentes. En segunda convocatoria, media hora más tarde, será suficiente con la presencia de un tercio de los miembros.

2.- Los miembros de los Consejos podrán exponer el parecer de la institución o entidad a la que representen, en relación con cada uno de los asuntos incluidos en el orden del día, mediante intervenciones orales, las cuales podrán complementarse con la presentación de informes escritos que, a solicitud de la parte que los aporte, deberán incorporarse al acta de la sesión.

En el caso de proceder la adopción de acuerdos, estos se tomarán por mayoría de los miembros asistentes a la sesión de que se trate, dirimiendo los empates el voto del Presidente.

3.- Kontseiluko buruak zuzenduko ditu bilkurak, idazkariaren laguntzaz: hitza emango die kideei, haien mintzaldiak bideratuko ditu, eta, behar izanez gero, baita mugatuko ere, kide guztiek parte har dezaten eta bilkurak taxuzkoak izan daitezzen.

#### 6. artikulua.- Aktak.

Bilkura guztietan aktak egingo dira. Bertan hauek jasoko dira: parte-hartzaileak, gai-zerrenda, eztabaidatutako gaiak, kideen mintzaldien laburpena, bozketak emaitzak eta hartutako erabakiak, horrelakorik badago.

Kideek berariaz eskatuta, aktetan erabakien aurka haien ezezko botoa jasoko da, eta horrekin batera, aurkezten dituzten txostenak erantsiko dira.

Aktetan idazkariaren izenpea eta buruaren oniritzia agertuko dira. Gainera, bilkuran egiten den egunean bertan edo hurrengo bilkuraren egunean, kontseiluki-deek euren onarpena eman beharko diote aktari.

#### 7. artikulua.- Araudi aplikagarria.

Dekretu honetan jasotzen ez den guztiari dagokionean, kide anitzeko organoen gainean Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 22. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa aplikatuko da.

#### 8. artikulua.- Sariak eta kalte-ordainak.

Kontseiluko kide izateak ez dakar inolako ordainsari berezirik kobratzea, salbu eta indarrean dagoen araudiaren arabera kideei dagozkien bidezko sari eta kalte-ordainak.

### XEDAPEN INDARGABETZAILEAK

**Lehenengoa.**- Xedapen hau indarrean jartzen denean indargabetu egingo da, behin betiko, uztailaren 11ko 369/1995 Dekretuaren 2. E artikulua, azaroaren 11ko 254/1997 Dekretuak emandako idazkeraren arabera (Dekretu hark Osasun Sailaren eta Osakidetza Administrazio-Organismo Autonomoaren egitura organikoak eta funtzionalak ezarri zituen, eta beste honek Osasun Sailaren egitura organiko eta funtzionala aldatu zituen). Izan ere, artikulua hori aldi baterako aplikagarritzat jo zuen Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 2ko 65/1999 Dekretuak.

**Bigarrena.**- Xedapen hau indarrean jartzen denean indargabetu egingo dira, halaber, ekainaren 27ko 136/1983 Dekretua, «Osasunbideetarako Euskal Batzordea sortzen duena», eta Osasun sailburuaren 1986ko maiatzaren 7ko Agindua, «Osasunetarako Euskal Batzordearen Funtzionamendu Araudia onartzen duena».

3.- Corresponde al Presidente, auxiliado por el Secretario, la dirección de las sesiones, dando la palabra a cada miembro del Consejo, moderando las intervenciones y limitando, en su caso, la duración de las mismas, en aras de permitir la participación de todos ellos y la buena marcha de las sesiones.

#### Artículo 6.- Actas.

Se levantarán actas de todas las sesiones, con indicación de los asistentes, orden del día, asuntos deliberados, resumen de las intervenciones de los miembros, resultado de las votaciones y contenido de los acuerdos que, en su caso, se adopten,

A solicitud de los miembros del Consejo, en las actas se hará constar su voto en contra de los acuerdos adoptados y se incorporarán los informes escritos que los mismos aporten.

Las actas deberán ser firmadas por el Secretario, con el visto bueno del Presidente y serán sometidas a la aprobación de los miembros del Consejo, en la misma o en la siguiente reunión.

#### Artículo 7.- Normativa aplicable.

En lo no previsto por el presente Decreto, será de aplicación lo dispuesto por los artículos 22 y siguientes de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, sobre órganos colegiados.

#### Artículo 8.- Dietas e indemnizaciones.

La pertenencia a los Consejos no dará lugar a retribución alguna, sin perjuicio de las dietas e indemnizaciones que, con arreglo a la normativa vigente, corresponda a sus miembros.

### DISPOSICIONES DEROGATORIAS

**Primera.**- A la entrada en vigor de la presente disposición se entenderá definitivamente derogado el artículo 2.E) del Decreto 369/1995, de 11 de julio, por el que se establecen las estructuras orgánicas y funcionales del Departamento de Sanidad y del Organismo Autónomo Administrativo Osakidetza-Servicio Vasco de Salud, en su redacción dada por el Decreto 254/1997, de 11 de noviembre, por el que se modifica la estructura orgánica y funcional del Departamento de Sanidad, declarado transitoriamente aplicable por la Disposición Transitoria Segunda del Decreto 65/1999, de 2 de febrero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Sanidad.

**Segunda.**- A la entrada en vigor del presente Decreto, así mismo se entenderá derogado el Decreto 136/1983, de 27 de junio, por el que se crea la Junta Vasca de Salud y la Orden del Consejero de Sanidad, de 7 de mayo de 1986, por la que se aprueba el Reglamento de Funcionamiento de la Junta Vasca de Salud.

## AZKEN XEDAPENAK

**Lehenengoa.**– Ahalmena ematen zaio Osasun sailburuari, dekretu hau indarrean jartzeko eta garatzeko behar diren xedapenak eman ditzan.

**Bigarrena.**– EHAAAn argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 1999ko ekainaren 22an.

Lehendakaria,  
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Osasun sailburua,  
GABRIEL M.ª INCLÁN IRIBAR.

## Agintariak eta Langileria

### Oposaketak eta Lehiaketak

#### BILBOKO UDALA

##### Zk-3096

IRAGARPENA, «Bilboko Udal Etxebizitzak» TEAREN 1999rako enplegu-eskaintza publikoaren aldaketa onartzeari buruzkoa.

«Bilboko Udal Etxebizitzak» Tokiko Eakunde Autonomiadunaren Administrazio Kontseiluak, 1999ko ekainaren 24an egindako batzarrean, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

– 1999ko apirilaren 21eko EHAAAn argitaratutako 1999rako enplegu eskaintza publikoaren aldaketa onartzea.

Honako hau adierazten zen lekuan: «Jagole/kobratzaile administrari lanpostu bat. Hizkuntz eskakizuna: 2; ez da derrigorrezkoa»; haxe jarri beharko da: «Jagole/kobratzaile administrari lanpostu bat. Hizkuntz eskakizuna: 2; derrigorrezkoa». Izan ere, hutsik geratu den lanpostuak aipatutako derrigortasuna dauka izendatuta.

Bilbao, 1999ko ekainaren 29a.

Presidentea,  
BEGOÑA GIL LLANOS.

## DISPOSICIONES FINALES

**Primera.**– Se faculta al Consejero de Sanidad para dictar cuantas disposiciones sean precisas para el desarrollo y ejecución del presente Decreto.

**Segunda.**– El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el BOPV.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 22 de junio de 1999.

El Lehendakari,  
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Sanidad,  
GABRIEL M.ª INCLÁN IRIBAR.

## Autoridades y Personal

### Oposiciones y Concursos

#### AYUNTAMIENTO DE BILBAO

##### Nº-3096

ANUNCIO de la modificación de la Oferta Pública de empleo del O.A.L. «Viviendas Municipales de Bilbao» para 1999.

El Consejo de Administración del O.A.L. «Viviendas Municipales de Bilbao», en su sesión celebrada el día 24 de junio de 1999, acordó, entre otros, el siguiente acuerdo:

– Aprobar la modificación de la Oferta Pública de Empleo para el año 1999, publicada en el BOPV de fecha 21 de abril de 1999, del siguiente modo:

Donde se ofertaba «1 plaza de Vigilante-Cobrador Administrativo, con perfil lingüístico 2, no preceptivo», modificarla por: «1 plaza de Vigilante-Cobrador Administrativo, con perfil lingüístico 2, preceptivo», ya que la plaza que ha quedado vacante tiene asignada dicha preceptividad.

Bilbao, a 29 de junio de 1999.

La Presidenta,  
BEGOÑA GIL LLANOS.